



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko azaroaren 3a

24. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere desadostasuna adierazten du Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak emandako 246/2015 eta 256/2015 epaiekin, Nafarroak trafikoaren arloan dituen eskumenei buruz, eta adierazten du ados dagoela Nafarroak alor horretan dituen eskumenen defentsan Gobernuak abian jarritako ekimen juridikoekin. EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berreskura ditzan alokairuko etxebizitzak sustatzeko laguntzak. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du doako eta kalitatezko zerbitzu publikoen alde, lehentasuna emanez baliabide publikoei pribatuen aldean, bai eta erabiltzaile eta langileen eskubideak bermatzearen alde ere. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan diharduten segurtasun indar eta kidego desberdinen koordinazioa indartzen jarrai dezan. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, botere publiko eta administrazio publiko guztiak premiatzen dira bulkatzen jarrai dezaten benetako europar politika bat, komuna eta integrala, immigrazioari eta asiloari dagokienez. Mozioa erretiratzea (7. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere desadostasuna adierazten du Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak emandako 246/2015 eta 256/2015 epaiekin, Nafarroak trafikoaren arloan dituen eskumenei buruz, eta adierazten du ados dagoela Nafarroak alor horretan dituen eskumenen defentsan Gobernuak abian jarritako ekimen juridikoekin.

EH BILDU NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere desadostasuna adierazten du Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak emandako 246/2015 eta 256/2015 epaiekin, Nafarroak trafikoaren arloan dituen eskumenei buruz, eta adierazten du ados dagoela Nafarroak alor horretan dituen eskumenen defentsan Gobernuak abian jarritako ekimen juridikoekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamariquek, Legebiltzarreko 187. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, eztabaidatzeko eta bozkatzeko, 9-15/ITP-00004 espediente zenbakia duen jabelduratik eratorria.

2015eko irailaren 30ean, gure parlamentu-taldeak jabeldura bat aurkeztu zion Gobernuari, hauxe zioena:

“Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 246/2015 eta 256/2015 epaiak eman ditu, zeinen bidez baietsi egin baititu Administrazio Zentralaren izenean Estatuko abokatuak jarritako bi errekurtsio, Nafarroako Gobernuak Barneko zuzendari nagusiak emandako bi ebazpenen aurkakoak, zeinen bidez trafikoaren arautzeko neurri bereziak ezartzen baitziren 2014an eta 2015ean.

Bi epai horietan adierazten da Nafarroak ez daukala inolako eskumenik ibilgailu motordunen zirkulazioari eta trafikoari dagokienez, Konstituzioaren arabera Estatuak horien gaineko eskumen osoa daukalako. Halaber, epai horietan esaten da Nafarroan ez dagoela trafikoaren erregulazioari eta trafikoaren balizko murrizketei buruzko inolako eskumen historikorik ere. Epaiko honako esaldi honen bidez laburbil daiteke epaiaren edukia: “Azpiegituren gaineko eskumena, zentzu zabalean, Nafarroarena da” –alegia, eraikitzea, kontserbatzea, seinaleztatzea–, baina bereizketa egin behar da “azpiegitura eta azpiegituren gertatzen denaren artean”; halako moduan non, azken hori, azpiegituren gertatzen dena, Estatuaren eskumen osokoa baita.

Urriaren 22an, Osoko Bilkuran izapidetu zen jabeldura hori, eta eztabaidatu egin zen.

Jabeldura horren ondorioz, honako mozio hau aurkeztu dugu, Legebiltzarrak bere iritzia azal dezan.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak bere desadostasuna adierazten du Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak emandako 246/2015 eta 256/2015 epaiekin, Nafarroak trafikorearen arloan dituen eskumenen ingurukoak, eta adierazten du ados dagoela Gobernuak alor horretan Nafarroak dituen eskumenen defentsan abian jarritako ekimen juridikoekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeki buruzko Lege Organikoko (LORAFNA) 51. artikulua aitortzen dituen eskumenen arabera eta Espainiako Konstituzioaren 149.1.29 artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian xedatutakoaren babesean, susta dezan Foruzaingoa Nafarroako polizia integral gisa eratzea, eta horretarako behar diren zuzemenak eginen ditu Estatuako Administrazioarekin dagokion negoziazioa izan dadin; negoziazio horretan sartuko dira polizia-eskumenen egikaritzea arlo guztietan, eta bestetik Nafarroarentzat horrek dakarren zama aitortzea, kostuak Nafarroaren eta Estatuaren arteko hitzarmen ekonomikoaren ondoriozko kupoari

egozteko, zerbitzu-transferentziako prozesuaren eta Transferentzia Batzordearen funtzioen esparruan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du transferentzia prozesu horretatik ateratzen den trafikore arloko eskumen-maila izan dadin, gutxienez ere, 3256/1982 Errege Dekretuan edo abenduaren 15eko 6/1997 Lege Organikoan jasotakoaren antzekoa.

4. Parlamentu honek arestiko 2. eta 3. puntuetan adierazitako zereginarekin bat, trafikore arloari dagokionez, egutegi bat eta banaketa geografiko bat finkatu beharko dira Foruzaingoaren hedapenerako eta Guardia Zibilaren atzeragiterako, zeina Foruzaingoaren hedapenaren proportzio berean egin beharko baita arlo honetako eskumenak egikaritzeari dagokionez. Horren balorazio ekonomikoa eginen da, eta horren arabera eragina izanen du Estatuari ordaindu beharreko kupoan.

Iruñean, 2015eko urriaren 27an

Eleduna: Adolfo Araiz Flamarique

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berreskura ditzan alokairuko etxebizitzak sustatzeko laguntzak.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berreskura ditzan alokairuko etxebizitzak sustatzeko laguntzak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Legegintzaldi honetan 600 etxebizitza inguru murriztuko da alokairuko etxebizitza babestuen parkea, egungo Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako lehendakariordearen aurreikuspenen arabera.

Bestalde, itxura batean eskaria egon badago, alokairuko etxebizitza eskatzeko moduan dauden 4.000 eskatzaile baitaude izena emanda Etxebizitza Erroldan.

Orain dela gutxi jakin izan dugunez, Nafarroako Gobernuak berrikusi egin du bere hasierako

proposamena, desgrabazio fiskaletik etxebizitza mota oro kentzearena etxebizitza babestura mugatzeko, eta horrek indartu eta suspertzen lagundu dezake etxebizitza babestuaren esparrua.

Honako mozio hau onartu eta hurrengo Osoko Bilkurarako izapidetzea eskatzen dut, gaurko egunez Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran izapidetutako jabelduratik eratorria. Nafarroako Parlamentuak premiatzen du:

1. Nafarroako Gobernuak alokairuko etxebizitzaren sustapenerako laguntzak berrezar ditzan, horiek errazteko adinako zenbatekoarekin.

2. Nafarroako Gobernuak gutxienez ere 5 milioi euroko zenbatekoa bidera dezan urtero alokairuko

etxebizitzaren sustapenerako laguntzetara, legegintzaldi osorako gutxienez ere 20 milioi euroko aurreikuspena eginez.

3. Nafarroako Gobernuak etxebizitza babestuen salerosketako BEZa dela-eta eginiko diru-bilketaren ehuneko ehun bidera dezan, betiere, alokairuko etxebizitzaren sustapenerako laguntzetara –bai berriena, bai zaharberrituena–, haiek alokairuan jartze aldera, egoera horretan irauteko konpromisoarekin.

Iruñean, 2015eko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du doako eta kalitatezko zerbitzu publikoen alde, lehentasuna emanaz baliabide publikoei pribatuen aldean, bai eta erabiltzaile eta langileen eskubideak bermatzearen alde ere.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du doako eta kalitatezko zerbitzu publikoen alde, lehentasuna emanaz baliabide publikoei pribatuen aldean, bai eta erabiltzaile eta langileen eskubideak bermatzearen alde ere.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak, EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Parlamentuko Erregelamenduari jarraikiz, honako mozioa aur-

kezten du, urriaren 29ko Osoko Bilkuran jorratutako jabelduratik eratorritakoa. Hartara, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatua eta bozkatua izan dadin eskatzen du.

Azkeneko hamarkadetan, globalizazioak eta ekonomiaren liberalizazioak eragin itzela izan dute eta, ildo horretan, oinarritzko zerbitzu publikoen kudeaketan sektore pribatuaren pisua gero eta handiagoa izateko joera nabarmena da. Neoliberalismoa bortizki ari da bide honetan, eta TTIP horren adibide esanguratsutzat har genezake.

Azkeneko urteotan, gainera, krisiaren aitzakiapean, pribatizatorako joera indartu egin da, hainbat falaziatan oinarrituta; sektore pribatua efizienteagoa eta merkeagoa dela, esaterako. Honek guztiak zerbitzu publikoen merkantilizazioa ekarri du, eta kalte nabarmenak langileen lan baldintzei eta erabiltzaileei eskaintzen zaien zerbitzuen kalitateari dagokienez.

Nafarroara etorrira, UPNk ere joera garbia izan du arlo publikoa gutxiesteko, baliabidez hustutzeko eta sektore pribatua puzteko, bai zerbitzu jakin batzuk pribatizatuz (ospitaleetako sukaldeak, adibidez), bai eta zeharkako bideak erabiliz enpresa pribatuak gaintik finantzatzuz, sektore publikoaren kaltetan.

Aurreko gobernuek ezarritako politikaren eraginez, egungo egoera kezkarria da politika sozial zein osasungintzako arloetan, bereziki. Pribatizazioen adibideak argiak dira dependentzia arloko egoitzen kudeaketan, osasun mentaleko egoitzetan, lan osasunaren zerbitzuan, osasun garraioan edo hainbat eta hainbat zerbitzutan ezartzen diren kontzertu eta deribazioetan.

Bada garaia joera hau iraultzeko eta denontzako zerbitzu publiko duin eta kalitatezkoen aldeko apustu irmoa egiteko, baliabide publikoak pribatuen gainetik lehenetsiz eta erabiltzaileen zein langileen eskubideak bermatuz.

Hain zuzen, ildo horri jarraitzen zaio akordio programatikoan, politika sozialetan eta osasungintzan, bereziki. Konpromiso argiak ageri dira baliabide publikoak efizientziaz baliatzeko sektore pribatuaren aurrean, inongo zerbitzurik ez pribatizatzeke, edota pribatizatutako zerbitzuak arlo publikora progresiboki berreskuratzea aztertu eta bultzatzeko.

Hau guztia aintzat hartuz, honako erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak konpromiso irmoa agertzen du zerbitzu publiko duin eta kalitatezkoen alde, baliabide publikoak pribatuen gainetik lehenetsiz eta erabiltzaileen zein langileen eskubideak bermatuz.

2. Nafarroako Parlamentuak nafar Gobernua premiatzen du al bait lasterren azterketa xehea

egin dezan pribatizatutako edo kontzertatutako zerbitzuetan arlo publikoak bere gain hartzeko aukerei eta lehenetsune dagokienez.

3. Nafarroako Parlamentuak konpromiso irmoa agertzen du ospitaleetako sukaldeen pribatizazioa iraultzea babesteko, erabakia atzerazina izan dadin. Era berean, zerbitzuaren berreskuratzea nola egingen den erabakitzeko prozesua ahalik eta parte hartzaileena izan dadin, sindikatuen, profesionalen eta erabiltzaileen iritzia jasotzeko bitartekoak jarritz.

4. Nafarroako Parlamentuak nafar Gobernua premiatzen du langile publikoen osasun laguntza bere osotasunean publikoa izan dadin urratsak eman ditzan, horretarako afera honetan inplikaturako eragile guztiekin elkarrizketa sustatuz, eta administrazioko Mahai Sektorial Orokorrean sindikatu guztiek adierazitako iritzia aintzat hartuz.

5. Nafarroako Parlamentuak nafar Gobernua premiatzen du osasun garraioaren arloan zerbitzua progresiboki publikifikatzeko aukerak, baldintzak eta epeak xeheki azter ditzan eta azterketa horren emaitza Parlamentuan azal dezan. Bien bitartean, enpresa pribatuekin egin litezkeen hitzarmen berrien gainetik, baliabide publiko guztiak erabiltzea lehenetsi dezan premiatzen du, geldirik dauden suhiltzaileen anbulantziak barne.

Iruñean, 2015eko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroan diharduten segurtasun indar eta kidego desberdinen koordinazioa indartzen jarrai dezan.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroan diharduten segurtasun indar eta kidego desberdinen koordinazioa indartzen jarrai dezan

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onets dadin, Nafarroako Foru Komunitatean Estatuko eta autonomia-erkidegoetako segurtasun kidego eta indarren arteko koordinazioa babestu eta indartzeko.

Nafarroako Foru Komunitateak beti izan du ezaugarri Espainiako autonomia erkidegoetatik seguruenetako bat izatea. Bizi-maila handiak eta herritar segurtasun handiak beraiekin ekarri dute Nafarroa, lurralde nazionalako probintzietatik, bizitzeko egokienetakotzat hartua izatea.

Estatistikek hori egiaztatzen dute. Izan ere, Barne Ministerioaren 2014ko Estatistika Urtekariaren arabera, Nafarroako kriminalitate-tasa (1.000 biztanle bakoitzeko arau-hauste penalak) 41,4koa izan zen, hiru puntu txikiagoa nazioko batez bestekoa baino –44,7koa–. Datu horrek are garrantzi handiagoa hartzen du, baldin eta kontuan hartzen badugu Espainian 2014ko kriminalitate-tasa nabarmen txikiagoa izan zela UE-15eko herrialde-

en batez besteko tasa baino, eta txikiagoa talde horretako herrialde ia guztien batez besteko tasa baino –Frantzia, Erresuma Batua, Alemania, Italia edo Herbehereak–.

Halaber, eta Nafarroako Foru Komunitatera itzulita, Nafarroako herritarrek segurtasunari buruz daukaten pertzepzioaren arabera, gure erkidegoa, beste behin, Espainiako hiru seguruenen artean dago.

Nafarroako segurtasunari buruzko datu positibo horiek faktore askori zor dakizkioke: bizi-kalitatea, enplegu-tasa, eskolatzeko-tasa eta abar. Baina bistan da Nafarroan lan egiten duten segurtasun kidego eta indarren jarduerak ere zerikusi handia duela emaitza horretan.

Hori dela eta, guztiz erabakigarri gertatzen da erabateko koordinazioa egon dadila Foruzaingoaren, Guardia Zibilaren, Polizia Nazionalaren eta Udaltzaingoaren artean, orain arte egon den bezalaxe, segurtasun-kidego eta -indar ezberdinen arteko sinergiak indartzeko eta, azken batean, herritarrak zaintzeko zerbitzurik onena bermatzeko.

Nafarren segurtasunak beti egon behar du interes politiko ororen ginetik, eta horregatik ezinbestekoa da irizpide profesionalak lehenestea; esate baterako, patruilen hurbiltasuna –zein kidegotakoak diren begiratu gabe–, zerbitzuak eskatzen diren unean zeinek duen lan-zama txikiagoa, edo kidegoak, kasuan kasuko gairako, dauzkan baliabideen kopurua eta espezializazioa. Horrela baizik ez dugu lortuko Nafarroa nazio-lurraldeko autonomia-erkidego seguruenetako bat izatea.

Hori guztia dela eta,

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du apustu egin dezan Nafarroan diharduten segurtasun-kidego eta -indar ezberdinen arteko koordinazioa, hots, Foruzaingoaren, Guardia Zibilaren, Polizia Nazionalaren eta Udaltzaingoaren artekoa, indartzen jarraitzearen alde, herritar nafarren segurtasuna zaintzeko ematen duten zerbitzua optimizatze aldera.

Iruñean, 2015eko urriaren 29an

Eleduna: Ana Beltrán Villalba andrea

Mozioa. Horren bidez, botere publiko eta administrazio publiko guztiak premiatzen dira bulkatzen jarrai dezaten benetako europar politika bat, komuna eta integrala, immigrazioari eta asiloari dagokienez.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez, botere publiko eta administrazio publiko guztiak premiatzen ziren bulkatzen jarrai zezaten benetako euro-

par politika bat, komuna eta integrala, immigrazioari eta asiloari dagokienez. Mozioa 2015eko irailaren 25eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

